

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA**OGASUN ZUZENDARITZA****Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuaren egintza administratiboak jakinaraztea**

Administrazioari ez dagozkion arrazoiengatik jakinarazpena egitea ezinezko izan da. Hortaz, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 108. artikuluan xedatutakoari jarraituz, aipatutako artikulua eskatzen dituen jakinarazteko ahaleginak egin ondoren, iragarki honen bidez ondoren zerrendatzen diren zergadunei edo beren ordezkariei dei egiten zaie agertu daitezen eta zerrendan adierazten diren prozeduren ondoriozko administrazio egintzen jakinarazpena jaso dezaten.

Interesdunek edo beren ordezkariak gehienez 15 egun izango dituzte agertzeko, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. Hain zuzen ere, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun Zuzendaritzako Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuaren bulegora jo behar dute (Samaniego kalea, 14 – 3. solairua. Vitoria-Gasteiz), astelehenetik ostiralera, 8:15etik 14:30era, bulego horrek izapidetutako prozeduren berri eman diezaien.

Agertzeko epea igaro, eta interesduna edo bere ordezkaria agertu ez bada, jakinarazpena eginda dagoela ulertuko da legezko ondorio guztietarako, agertzeko emandako epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 3a

*Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuaren burua***GONZALO LÓPEZ-HUERTA MARTÍNEZ DE ARAGÓN**

PROZEDURA	IFZ	ESPEDIENTEA
Hasiera emateko jakinarazpena, zehapena ezartzeko proposamena eta alegazioen izapidea	16290827L	2026/56251/1